

EUSKAL MATRIARKATUA

Azken tanta baino ez zaigu geratzen **Euskal Kultura Tradizionala ezagutuz** ikastaroaren aska betetzeko.

Eta azken aurreko saioa emakumeak euskal gizartean izan duen pisua eta eragina nabarmentzeko aprobeztatu zuen Xamarrek. Baina gaian bete-betea sartu aurretik,



Sugar kometa da, suzko bola, eta Mariren senar modura ere aurkezten da.



Balzolako koba, Diman (Bizkaia), Sugaarren bizilekueetako bat.

lehendik aztertutako gaien inguruko bi detaile aitatu zizkigun. Batetik, Zuberoan zapatuari neska-eguna deitzen diotela esan zigun. Hori bai, ez zigun zergatia azaldu. Eta, bestetik, pertsonai mitologikoen artean, *Sugar* aurkeztu zigun. *Sugar* kometa da, suzko bola, eta [Mariren](#) senar modura ere aurkezten da. Mari eta *Sugar* senar-emazteek bat egiten zutenean sortzen omen zen ekaitza (hau gaur egun ere gertatzen da, ezta?).

Sugar eta *Mariren* ekaitzak baretu ondoren itxi genituen euskal mitologiako atea.

Xamarrek esan zigun moduan, lehen *izena zuen guztia omen zen*. Orain, berriz, *telebistan azaltzen den guztia da*. Askotan esan dugu mitologia herri batek mundua ulertzeko modua dela, eta euskaldunok gurea izan genuen; eta sinistu egiten genuen, gainera. Orain telebistan azaltzen diren mitoetan sinisten dugu.

Serorak

Urretxuko Mendizabal baserriko Itziar Sasieta, azken seroretako bat.



Euskal mitologia nagusiki femeninoa dela azpimarratu zigun Xamarrek, eta, bere ustez, hau ez da kasualitatea. Euskal gizartearen isla da. Eta horren erakusgarri izan zen seroraren figura. Serora, egungo begiekin begiratuta, elizako lanak egiten dituen emakumea da; eliza garbitu eta apaizari laguntzen diona. Baina hau gaur egun geratu zaiguna baino ez da. Izan ere, serorek hori baino funtzio garrantzitsuagoa izan zuten Euskal Herrian. Serora herriak aukeratzen zuen (neska edo alarguna izaten zen, normalean) eta elizako kontu asko bere arduraren egoten ziren. Besteak beste, eliza barruan bakoitza non jarri behar zen erabakitzen zuen. Eta hilerrak antolatzen zuten berea izaten zen. Garai batean, gainera, herriko haur guztien izenak ere serorak aukeratzen zituen, nahiz eta gurasoei izena gustatu ez. Duela 40 urte Aramaion serorak aukeratzen zituen umeen izen batzuk; beraz, ez da aspaldiko kontua.

Serorek ez zuen tokirik eliza katolikoan, eta mendeetan zehar hamaika ahalegin egin zen seroraren figurarekin amaitzeko. Baina ez zuten lortu, eta Italiako eliza gure artean zabaldu arren, gure elizan emakumea izan genuen aurre-aurrean. Serora euskal apaiz femeninoa zen, eta bera zen herriko emakumeen erreferentzia. Lapurdiko Sara herriko elizan, adibidez, seroraren hilobia Axular idazlearen parean dago, herriko aberats eta jauntxo guztien aurretik.

Galdetu amari

Beste toki batzuetan ere izan ziren seroren antzerako figurak, baina desagertu egin ziren denean. Euskal Herrian bakarrik iraun zuten serorek, eta, Xamarren esanetan, hau ez da kasualitatea. Berriz ere, euskal gizartean emakumeak izan duen pisua erakusten digu honek. Euskal kultura tradizionalan emakumearen eta gizonaren artean dagoen parekotasuna harrigarria dela azpimarratu zigun. Bere esanetan, euskal gizartean amaren pisua handia izan da (handiegia ere bai, kasu askotan); erabakia amarena izan da. Euskal emakumeari inguruko herrietako emakumeei ikusten ez zitzaaien indarra eta eragina ikusten dio Xamarrek.

Nahi al don?

Esaten dihardugunaren adierazgarri da, baita ere, euskaldunok berba egiteko daukagun *hika* sistema (edo hitanoa). Euskaldunon artean *hika* berba egiten genuen *zuka* hitz egiten hasi baino lehenago. Eta garai batean hika egitea gaizki ikusita egon bazen ere (zatarra eta txakurrei hitz egiteko modua zela esaten zen), Joanes Leizarragak *Gure Aita* errezoan hika egiten dio Jaungoikoari. Honek, besteak beste, gurasoei edo nagusiei hika ez egiteko ohitura gaztelaniatik hartutakoa dela erakusten digu, Xamarren ustez. Hika sisteman, gainera, generoa beti markatu eta bereiztu egiten da (nahi dok?/nahi don?) eta beste hizkuntzetan ez da horrelakorik ematen (gaztelaniaz, adibidez, *¿quieres?* galdatzen zaie bai gizonetzkoiei eta baita emakumezkoiei ere). Hau ere ez da kasualitatea. Xamarrek hizkuntza gizarte sistemaren aurretik ikusten du.

Segidan, emakumeek euskal gizartean zuten pisua erakusten zuten pare bat istorio kontatu zizkigun, baina gogorak ziren eta ez zigun idatziz jasotzeko baimenik eman.

Kaiolarra

Amaitzeko, Pirinioen gainetik salto egin eta Zuberoako artzainen artera joan ginen, hauek zuten lan-sistema ezagutzeko. Arbelik gabe esplikatzea erreza ez bada ere, saiatuko gara ahal dugun txukunen azaltzen.

Artzainak gizonetzkoak izan arren, lan egunen izenetan emakumea azaltzen da.




Kaiolarra ardiak zaindu eta artzain lanak egiteko metodoa da. Jo dezagun 20 etxetako artzainak elkartzen direla eta denen arteko lan-metodologia zehazten dutela. Izan ere, 20 etxetako ardiak zaintzeko ez daukate 20 artzainak mendira igo beharrik. Sei artzainekin nahikoa da. Beraz, sei artzain dira mendian ardiekin egongo

direnak, eta egunero-egunero artzain bati emango zaio erreleboa. Egunero artzain berri bat igotzen da mendira, eta hau igotzean lehendik zegoen bat jaisten da. Beraz, artzain bakoitzak sei egun ematen zituen lanean eta zazpigarren egunean etxera bajatzen zen. Lan-sistema honi *aldizka* sistema deitzen zaio.

Eta sistema zein zen ikusi ondoren, lan egun bakoitzak bere izena zuela esan zuen Xamarrek. Ikus ditzagun:

- 1.egunari: **neskatoa**
- 2.egunari: **arkume mutil**
- 3.egunari: **arkume nagusi**
- 4.egunari: **ardi mutil**
- 5.egunari: **ardi nagusi**
- 6.egunari: **etxeko anderea**



NICOLAS ARDANAZ

eta 4.

egiten

Sistema oso-oso berezia da. Izan ere, hiru egunetan (1, 2 egunetan) beste baten aginduetara lan egiten zuen artzainak, baina 3, 5 eta 6. egunetan artzain horrek agindu egin behar zion beste artzain bati. Xamarren hitzetan, “*aldizka metodoa izugarria da: gaur agindu duzu, baina bihar beste baten aginduak bete behar dituzu*”. Metodo honekin 15 urteko artzain hasiberriak 65 urteko artzain beteranoari agintzen zion; eta honek kasu egiten zion, batere arazorik gabe. Gainera, sistema honekin egunetik egunera igotzen doaz artzainak dituen ardurak, eta seigarren eguna da inportanteena; egun horretako lanak gazta egitea, txabola mantentzea eta jana prestatzea zen. Hau da, etxeko lanak egitea. Gero, oso-oso kurioa da lehen eta azken egunek duten izena. Lehen egunari *neskatoa* deitzen zaio (neskame lanak egiten zirelako), eta seigarrenari *etxeko anderea* (egunik garrantzitsuena zelako). Artzainak gizonezkoak izan arren, lan egunen izenetan emakumea azaltzen da. Hau ere kasualitatea?! Lan sistema hau ez da inon eman, eta, Xamarrek esan zigunez, antropologoak buru-belarri dabilta hau aztertzen. Bada gazta egitea umeak egitearekin konparatzen duenik ere.

- **Abenduaren 3an Xamarri elkarrizketa**



Xamar.

Hasieran esan bezala, saio bakarra falta zaigu ikastaroa amaitzeko. Baina etzi (abenduak 3), Xamar ez da Elgoibarrera etorriko Nafarroako Eguna delako (akordatu Xamar nafarra dela). Hala ere, eutsi egingo diogu [Izarren Hautsa blogean](#) daukagun asteroko zitari, eta

kronikarik idatziko ez badugu ere, Xamarri egindako elkarrizketa eskainiko dizuegu. Abenduaren 3an Nafarroako Eguna ez ezik Euskararen Nazioarteko Eguna ere bada, eta euskararen gainean jardun dugu Xamarrekin. Besteak beste, egun hori ospatzeko motiboen gainean egingo digu gogoeta Xamarrek.

SORGINAK SUTARA

Aurreko astean, besteak beste, [euskaldunok hartzetik gatozela](#) esan bazigun Xamarrek, aste honetan sorginen eta pertsonaia mitologikoen artean mugitu gara batera eta bestera.

- **Sorginak eta belagileak**



Sorgina erromatar mitologiatik euskal mitologiara pasatako pertsonaia da.

Sorginen fenomeno konplexua dela esan zigun Xamarrek.

Sorgina erromatar mitologiatik euskal mitologiara pasatako pertsonaia da, hitzaren erroak erakusten duen moduan: *sor-egin* (sors: zorte latinez). Beraz, sorgina *sortilejioak* egiten dituena izango litzateke. Baina Zuberoan sorginari **belagile** deitzen zaio (*belar egilea*). Izan ere, garai hartan, belargileak jainkoen parean zeuden, belarrekin pertsonak sendatzeko

gaitasuna zutelako. Baina, pertsonak sendatzeko gauza denak, ez al du kalte ere egiteko gaitasunik izango? Belagileekin edo sorginekin kontuz ibili behar zela pentsatzen zuten, eta azalpen argirik ez zuten gauzen atzean sorginen eskuak ikusten zituzten.

Orain arte sorginak beti emakumezkoak imajinatu baditugu ere, sorgin hitzak sexu markarik ez daukala esan zigun Xamarrek. Sorgina emakumea edo gizona izan zitekeen.

- **Sorgin ehiza hasten da!**



Gure artean, behar bada, Zugarramurdiko sorginen kasua izan da orain arte ezagunena.

1610. urtean 300 pertsona sorginkeriekin lotuta harrapatu zituzten Nafarroako herrian; susmagarrienak Logroñora eraman zituzten eta, epaiketaren ondoren, 18 aske geratu ziren, beren "errua" onartu ondoren. Salaketa onartu ez zuten zazpi lagunak, berriz, erre egin zituzten, eta beste

batzuk torturaren ondorioz hil ziren. Baina Zugarramurdikoa ez zen ezer ere izan benetan gertatu zenarekin konparatzen badugu. Izan ere, sorginen kontrako ehiza basatia Gaztelak Nafarroa konkistatu ondoren hasi zen (1512-1530). Eta honen bultzatzaile nagusia, gainera, botere zibila izan zen (eta ez Inkisizioa); izan ere, ehiza honen benetako helburua konkista ondorengo matxinaden kontra egitea eta herritarrak kontrolatzea zen. Konkistatzaileen gustukoak ez ziren guztiei sorginkeria leporatzen zieten, eta, hartara, bidea libre zuten haiekin nahi zutena egiteko. Prozesurik lazgarrienak Pirinioetan eman ziren eta, adibidez, 1525ean 80 sorgin erre zituzten arratsalde batean. Lapurdin, berriz, 700 sorgin erre zituzten 1609an, bizpahiru apaiz tartean, eta kasu honetan ere arrazoiak politikoak izan ziren. Itsasoan zeuden gizonezkoak matxinatu egin ziren lurrera bueltatu zirenean, eta orduan amaitu zen sarraskia.

Prozesu hauen atzean, gainera, interes ekonomikoak ere bazeuden. Sorginei dirua eta etxea kentzen zieten, gero soldaduen artean banatzeko. Xamarrek esan zigunez, elizak eta botere zibilak borroka bat baino gehiago izan zuten sorginen kontrako prozesuak zeinen arduran geratuko ziren erabakitzeke; bistan da diru eta interes handiak zeudela kontu honen atzean.



Beraz, Xamarrek argi laga zigun Euskal Herrian eman ziren sorginen kontrako prozesuak arrazoi politikoek eragindakoa izan zirela. Gerora ere izan ziren sorgina izatearen akusazioak, baina XVI. eta XVII. mendearen hasieran izan zen jazarpenik handiena.

Eta, zer dakigu akelarreen gainean? Xamarren esanetan, ez dago ezer ere frogatuta akelarreen gainean. Toti Martinez de Lezearen liburuetan azaltzen dira akelarreak, baina Xamarren ustez ez dago ezer segururik. Izena, berriz, Zugarramurdiko larre baten izena da akelarre. Sorginak larre horren inguruan biltzen zirela uste da, eta horregatik deitzen zaie akelarre sorginen bilkurei.

• Mari eta bere lagunak

Mari ama lurra da euskaldunontzat, eta bere alabak dira ilargia eta eguzkia.



Sorginak sorginkeriatan laga ondoren, mitologiako ateak zabaldu zituen Xamarrek. Baina barrura sartu aurretik berriz ere gogorarazi zigun mitologia herri batek mundua azaltzeko duen modua dela. Mitologiaren bidez gauza guztiek daukate azalpena edo zergatia; bai naturak sortutakoak eta baita gizakiak egindakoak ere. Horregatik dago euskal mitologia pertsonaiez beteta. Eguna eguzkiak argitutako gizakiarentzat bazen, pertsonai mitologikoak lur azpian bizi ziren, ilunpean, eta gauzez bakarrik irteten ziren haitzulo, iturri eta bestelako zirrikituetatik. *Eguna egunezkoarentzat eta gaua gauezkoarentzat* zioen orduko esaera batek, eta honek orduko gizakiak gauari zion beldurra erakusten digu. Horregatik ikusten dira, oraindik ere, baserrietako atarrietan eguzki loreak (euskaldunon eguzki partikularra), pertsonai txarrak uxatzeko. *Gaueko* pertsonai mitologikoa ere hor daukagu, gauean etxetik irteten zirenak berarekin eramateko.



Anbotoko damaren kobazuloko leihoa Anbotoko erraietatik begiratuta.

Baina gure pertsonai mitologikoen artean, behar bada, Mari da ezagunena. Mari ama lurra da euskaldunontzat, eta bere alabak dira ilargia eta eguzkia. Izaki mitologiko guztien nagusi edo amatzat ere badaukate leku askotan, eta dama deitzen diote. Mari ere lur azpian bizi da, baina lur azalarekin kontaktu zuzenean dago leize eta kobazuloen bitartez (hor daukagu Anbotoko damaren kobazulo ezaguna, adibidez, baina ez da bakarra). Emakume eder baten itxuraz

azaltzen da normalean, baina batzuetan animalia itxura ere hartzen du: zaldia, belea, ... Beste batzuetan, berriz, suaren edo haizearen forma hartzen du, eta ahalmen handiak ditu; ekaitzak, adibidez, Marik sortutakoak omen dira. Gure aurrekoek Mariri luzatzen zizkioten ekaitzen kontrako eskariak. Gainera, Mari oso lurterra zen, lur azpian bizi arren. Ez zuen batere arazorik jendearekin aurrez aurre egoteko, eta jende asko joaten zen berarengana aholku eta laguntza eske. Hori bai, Mari oso zorrotza zen eta bere legeak zituen; ez zituen onartzen gezurrak, lapurretak, harrokeria edo emandako hitza ez betetzea. Mari, azken finean, etika zen.



Beste izaki mitologiko bat Basajauna da. Oihanetan bizi da, iletsua, handia eta indartsua da, eta gizaki itxura dauka. Baina izaerari dagokionez, modu diferenteetan azaltzen zaigu. Zuberotan, adibidez, gaiztoa da, baina, normalean, artaldean babeslea da. Ekaitza hurbiltzen denean oihu egiten du artzainek ardiak bil ditzaten. Basoaren pertsonifikazioa da Basajauna, eta Europa osoan zabaldutako pertsonaia da.

Basotik irten eta lamien bila abantatu ginen. Lamiek emakume itxura dute, nahiz eta batzuetan oinak oiloarenak edo ahuntzarenak izan. Kostaldean, berriz, gorputz erdia, behekoa, arrainarena bezalakoa daukate. Lamiek gizakiaren laguntza eskatzen dute batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, lamiak dira gizakiari laguntzen dietenak. Lamiei, batez ere, eraikuntzak egitea leporatzen diete: zubiak, trikuharriak, etxeak, elizak edo gazteluak.



Pertsonai mitologiko hauek ez ziren sortu hurrei gaez ipuinak kontatzeko. Hori baino zerbait sakonagoa da. Askotan esan dugun moduan, herriak zituen galderei erantzuteko ziren; bizitzari buruzko interpretazio bat da, eta jendeak sinistu egiten zuen.

Begizkoaren beldurra

Begizkoa pertsona batzuek begien bitartez indar gaiztoa zuten gaitasuna zen.

Amaitzeko, begizkoen gainean jardun
Begizkoa pertsona batzuek begien
indar gaiztoa zabaltzeko zuten gaitasuna
Normalean sorginen ahalmena zen, baina
zitekeen beste batzuek ere ahalmen bera
Honen harira istorio bitxi bat kontatu
Xamarrek. Gizon batek dezente galdu
zuen jokoan Tolosako Beotibar pilotalekuan, eta zorrei aurre egiteko, etxeko txerria saldu
zuen. Baina emazteak etxeko txerria falta zela ikusi zuenean, begikoa edo madarikazioa
bota zion txerria harrapatu zuenari. Handik gutxira, senarra hil zitzaion. Emakume koitadua,
txerririk eta gizonik gabe geratu zen.



zabaltzeko

genuen.
bitartez
zen.
gerta
izatea.
zigun
omen

EZ GATUZELA TXIMINOTIK?!

Aurreko astean [inauterien gainean](#) jardun bagenuen, gaurkoan ugariak eta diferenteak izan dira Xamarrek ekarri dizkigun gaiak. Ea asmatzen dugun denak ondo samar azaltzen.

Santa Agedaren zergatia



garai batean emakumeak bakarrik irteten omen ziren eskean Santa Ageda bezperan.

Santa Agedak oihartzun handia izan du beti euskal kulturaren, eta Elgoibarko kasuan, gainera, garrantzia berezia du jai honek. Etxegiñaren taldea 1925. urtetik irteten da eskean, eta Elgoibarko Izarrak ere 1993an berreskuratu zuen otsailaren 4an baserriz baserri kantatzeko ohitura zaharra. Xamarren esanetan, Elizak Santa Ageda jaiaren zergatiak bere ikuspegitik azaldu aurretik ere, bazegoen zerbait gurean. Ez dakigu zergatik egiten zen, baina badakigu

Santa Ageda gaua kanpaiak jotzen pasatzen zutela emakumeek. Eta baserritarrak, berriz, adi-adi egoten omen ziren kanpai hotsen oihartzuna nondik zetorren entzuteko. Izan ere, oihartzuna zetorren tokitik, udan ekaitza etorriko zela uste zuten. Gainera, garai batean emakumeak bakarrik irteten omen ziren eskean Santa Ageda bezperan.

San Joan jaiak: sua eta ura

Bizitzaren bi sinboloak diren ura eta sua Gabonetan eta San Joan jaietan azaltzen zaizkigu.



Eguberriak eta inauteriak ikusi ondoren, San Joan jaiari erreparatuko diogu. Ekainaren 24an da San Joan, eta euskararen kasuan, hilaren izena eta izana bat datoz. Izan ere, ekaina (eki-gaina) eguzkiak altuerarik handiena hartzen duen hilabetea da. Eta San Joan jaiak, batez ere, suagatik bada ere ezaguna, Euskal Herriko San Joanetan bizitzaren bi sinboloek dute presentzia. San Joan gaua suaren inguruan pasa ondoren, eguzkia irteten aurretik biluztu eta uretan bainatzeko ohitura zegoen lehen. Eta bainatzeko ohitura leku gehienetan

desagertu bada ere, toki batzuetan jendea eguzkiarekin batera oinutsik irteten da belardietako ihintzetan oinak bustitzera.

Beraz, bizitzaren bi sinboloak diren ura eta sua Gabonetan eta San Joan jaietan azaltzen zaizkigu.

Zuhaitz onak, itzal ona

Sanjoanetako suak eta bainuak atzean laga ondoren, zuhaitzen gainean jardun zigun



Xamarrek. Zuhaitzek pisu berezia izan dute euskal kulturaren, eta, batez ere, haritza eta pagoa izan dira bereziak gurean. Ez dugu ahaztu behar, adibidez, herrietako batzarrak edo biltzarrak zuhaitz baten azpian egiten zirela; haritzaren azpian, gehienetan. Baina kristautasuna zabaltzen joan zenean, eliza arkupeetan hasi ziren egiten batzarrak. Gernikako arbola da, dudarik gabe, ezagunena eta zutik segitzen duen bakarra, baina, esan bezala, lehen horrelako

zuhaitz asko zeuden.

Pagoek, berriz, izen propioak ere badituzte, eta istorioren bati lotuta egoten dira gehienetan. Urrutira joan gabe, hor daukagu Atxolin eta Irukurutzeta artean dagoen Pagobedeinkatua, gurutzeta alboan duela. Ez dakigu beraren gaineko istoriorik, baina, oraindik ere, maiatzaren lehen domekan meza eta erromeria izaten dira pagoaren inguruan.

Lizarra, berriz, tximistaren kontra babesteko oso ona zela uste zuten. Hala, mendian isolatuta dauden borda edo txabola asko lizarra artean daude. Eta Xamarrek esan zigunez, baserriarren artean bazegoen ohitura lizar hostoak txapelaren azpian jarrita ibiltzeko, tximistetatik babesteko.

Eta tximistak aitatu ditugunez, aizkora eta igitaia ere etxea tximistetatik babesteko ziren. Horregatik ikusten ditugu biak, oraindik ere, baserri askotako atarrietan, nahiz eta erremintak arriskutsuak izan. Denok dakigun moduan, aizkora originalak (neolitiko garaikoak), harrizkoak ziren, eta polita izan zen Xamarrek honen gainean eman zigun azalpena. Ordukoen ustez, tximistak lurra jotzen zuenean, lurraren barrura pasa eta harri bilakatzen ziren; harri hauek 7 urte behar izaten zituzten lur azalera igotzeko, eta lur azalera bistaratutako harri hauek izaten ziren aizkorak egiteko aprobetxatzen zituztenak. Aizkorak egiteko ez ezik, sua egiteko ere izaten ziren harriok (sukarria: sua egiteko harria). Horregatik, leku batzuetan tximistari tximistarria ere deitzen zaio. Uste hau Europa osoan omen zegoen zabaldua.

Urtaroak zenbat dira? Eta asteko egunak?

Ekaitzaren ondoren barealdia datorrela aprobetxatuta, aizkorak gorde eta egutegiari begira jarri ginen. “Zenbat urtaro daude, zuen ustez?”, galdetu zigun Xamarrek. Denoi etorri zitzaizkigun lau urtaroak burura, baina laster esan zigun euskaldunon urtaroak bi zirela. Uda eta negua, hain zuzen ere; udazkena eta udaberria udararen eranskinak baino ez direla. Izan ere, euskal urtaroak artzaintzari lotuta daude, eta artzain munduak bi garai edo urtaro dituzte (negua, ardiak behean dauden garaia, eta uda, ardiak mendira igotzen direnekoa), urtaroak ere bi dira. Lau urtaroen kontua erromatarrekin batera iritsi ziren gurera.



Hilabeteak, berriz, nekazaritzari lotuta antolatu genituen euskaldunok. Nekazariak lan gehiago zuten, ugariagoa zen lana, eta gehiago zehaztu eta zatitu behar zuten denbora. Gainera, gure hilabeteak klimari ere oso lotuta daude, eta Nafarroako toki hotzetan, adibidez, bi abendu daude. Denak aitatzea luze joko badu ere, esandakoa argitzeko hiruzpalau adibide ikusiko ditugu:

Urtarrila: Urtarrilari ilbeltza edo izotzila ere deitzen zaio; bistan da zergatik.

Maiatza: Loraila edo loreila ere deitzen zaio, maiatza loreen hilabetea delako.

Abuztua: Agorrila ere deitzen zaio, abuztua agorra edo lehorra delako.

Azaroa: Azila edo gorotzila ere deitzen zaio, azaroa delako hazia ereiteko eta simaurra zabaltzeko hilabetea.

Beraz, urtaroak abeltzaintzari eta hilabeteak nekazaritzari lotuta dauzkagu euskaldunok. Hori bai, zergatik aukeratu zituen Euskaltzaindiak latinetik datozen hilabete-izenak gureak hain esanguratsuak eta argiak izanik?

Segidan, asteko egunak idatzi zituen arbelean Xamarrek. Berak esan zigunez, euskaldunon berezko astea hiru egunekoa zen: astelehena, asteartea eta asteazkena, hain zuzen ere. Zelten eraginez bost eguneko astera pasa ginen, eta, azkenik, 7 eguneko astea erromatarren garaikoa da.

Hartza eta euskaldunok

Bigarren saioan esan genuen erleak sakratuak zirela gure kulturari (eta beste kultura askotan ere bai).

Gaurkoan, berriz, euskaldunok zer animaliatik gatozen argitu digu Xamarrek. Orain arte gu ere tximinotik gatzela pentsatu izan badugu, gaurtik aurrera hau ere zalantzan jarri beharko dugu.



Garai batean hartza sarri ibiltzen zen gure mendietan. Baina haren presentzia gutxitzen joan zen neurrian, hartzaren gaineko sinismenak ere desagertzen joan ziren (Zuberoan geratzen dira hartzaren gaineko azken sinismenak, eskualde honetan duela gutxira arte ibili baita hartza). Euskal inauterietan asko azaltzen den animalia da hartza. Baina, hartza, beste animalia batzuk ez bezala, errespetuz tratatzen da eta ez zaio inolako kalterik egiten. Zergatik begirune hau hartzari? Zaharrek uste zuten gizuna hartzetik zetorrela (“gizuna hartzetik fabrikatürik duzü”) eta, gainera, “gizuna beno intelijentago dügü”. Lehengoan ustez, euskaldunok hartzetik gatoz eta horregatik da animalia sakratua guretzat. Hartza hil aurretik errezo berezia egiten zuten, eta hilez gero, hil zuenak suerte txarra izango zuela uste zuten. Sinismen hau Kanadan ere ikusten omen da. Gainera, Hartzaren khantoria ere bildu zuten Zuberoan, eta kanta honetan zera kontatzen da: hartz batek koska egin omen zion neska bati, eta neska honen mina handitzen joan zen bederatzi hilabetez. Baina bederatzigarren hilabetean, mina desagertu eta fruitu bilakatu zen. Gizakiaren jatorria azaltzeko beste era bat da. Kultura guztiek daukate berea, eta guk ere badaukagu gurea.



Animaliekin amaitzeko, akerra aitatu zigun Xamarrek. Zorte ona ematen zuen animalia zen akerra. Eta aker beltza, gainera, beste animaliak babesteko izaten zen. Euskaldunon kasuan beltza kolore ona da, gaztelaniaz ez bezala.

Lurrak berba egiten du

Zazpigarren saioa amaitzeko, lurrari begira jarri ginen denok. Eta Xamarrek esan zigun moduan, euskaldunok ez gara jabetzen toponimiaren aberastasunaz. Toponimia herri baten kulturen sartzeko klabea da. Izan ere, izenek lurralde horretako historia erakusten digute: nolako lekua zen, zer jende bizi zen bertan, zer bilakaera izan duen, ... Toponimiak, normalean, sustrai sakonak ditu eta nekez aldatzen dira izenak. Eta izen hauek dira, hain zuzen ere, sortu ziren garaiko gizartearen ezaugarriak erakusten dizkigutenak.



toki

Datorren astean mitologian sartuko garenez bete-betean, Euskal Herriko toponimian mitologiak izan duen presentzia eta eragina nabarmena dela esan zigun Xamarrek. Mitologiari lotutako toponimia Euskal Herriko herri guztietan omen dago. Mundua esplikatzeke modu bat da mitologia, eta garai bateko gizartea zelakoan zen ikusten saiatuko gara euskal mitologia lagun hartuta. Adibide moduan, eta etxera joan aurretik, duela 40 urte Luzaiden gertatutako istorio bat kontatu zigun Xamarrek. Artzain batek bere ardiak eramán zituen mendira, eta ardiak mendian laga ondoren, etxera bueltatu zen lotara. Hurrengo egunean, ardiak lagatoko tokira bueltatu zenean, ardiak ez zeudela lagatoko tokian konturatu zen. Artzaina arduratuta hasi zen hara eta hona ardi bila, eta, halako batean, topatu zituen, baina laga zituen tokitik oso aparte. Zelan joan ziren ardiak haraino? Zergatik alde egin zuten? Buruari hamaika buelta eman ondoren, gau hartan ekaitza izan zela gogoratu zen, eta artzaina lasai geratu zen, bazekielako Basajaun izan zela ardiak mugitu zituena ekaitzetik babesteko.

ZOMORRO MOZORROAK

Aurreko astean [Gabonetako errituen gainean jardun bagenuen](#), aste honetan inauterietako mozorroak jantzi ditugu.

Inauterien jatorria erromatarren eta eliza katolikoaren azalpenetan topatu behar genuen, orain artean, baina Xamarrek askotan errepikatzen digun moduan, euskaldunon historia ez da zero urtean hasten. Beraz, kasu honetan ere, historiaurrera jo behar dugu inauterien gaineko azalpenen eta zergatien bila. Eta inauterien zergatiak ulertzeko, [Juan Antonio Urbeltz](#) (Iruñea, 1940) folkloristaren teoriak izan ditugu bidelagun. Teoria ausartak, Xamarren esanetan, baina logikaz eta zentzuz betetakoak.

Begiak itxi eta Europako gizartea nekazaritzatik bizi zen garaietara salto egin behar dugu. Eta saltoa handia bada ere, orduko eta gaurko gizartearen beharrak berdinak direla konturatuko gara. Izan ere, zein izan da beti gizakiaren beharrik basikoena? Jatea; norberak jatea eta inguruko jana ziurtatzea. Jatekorik ez dagoenean gaixotasuna, etsipena eta heriotza nagusitzen dira. Beraz, garai hartako gizartearentzat uzta zen bizitzaren oinarria. Uztarik ez zegoenean, ez zegoen jatekorik, eta jatekoa falta zenean, esan bezala, gaixotasunak eta heriotza nagusitzen ziren.

Inauteriak: Uzta zaintzeko herri konjuruak

Inauterietako erraldoiek, zanpantzarrek, gose irudikatzen dute.



Eta hau guztia, zertara dator? Gosearen eta uztaren kontu honek, zer lotura dauka inauteriekin? Urbeltzen teoriaren arabera, inauteri tradizionala gosea konjuratzeko egiten zen; uzta zaintzeko herri konjuruak ziren. Ikus dezagun zelan arrazoitzen duen teoria hau. Ipuin askotan ikus daitekeen moduan, gosea erraldoiek irudikatzen dute. Askotan entzun ditugu haurrak jaten dituzten erraldoi ase ezinen gaineko ipuinak. Beraz, erraldoi hauek konjuratu egin behar ziren; orduko pentsamendu magikoaren ustez, erraldoi hauei min eginez gero, gosearen kontra ziharduten. Iparralde osoan ospatzen ziren inauterietan, adibidez, panpina erraldoi hauek azaltzen ziren, eta, azkenean, erre egiten zituzten. Horregatik ospatzen dira

inauteriak neguan, uztailean (uztaren hila) jaso behar zuten uzta ona izateko eta goserik ez pasatzeko. Panpina erraldoi hauek izena ere badute gurean: Zanpantzar (Frantziar Saint Pansard deitzen diote, euskarako izenetik hartuta, bistan denez, baina santuekin batere loturarik ez duena).

Herrietako inauteriak

Puntu honetara iritsita, herrietako eta hirietako inauteriak bereiztu behar ditugu. Hirietako inauteriak dibertsioarekin edo ondo pasatzearekin lotuta badaude, herrietako inauteriak ez ziren ondo pasatzeko egiten. Izan ere, herri txikietako jendeak beldurra zien inauteriei. Xamarren hitzak errepikatuz, herrietako inauteriak “*basak*” ziren; basatiak. Zanpantzarra edo erraldoia erre ondoren hasten zen jaia; hau da, gosea erre ondoren.



Joaldunek intsektuak edo zomorroak irudikatzen dituzte.

Inauterietako gainontzeko pertsonaien esanahia ere azaltzen digu Urbeltzek. Bere teoriaren arabera, inauterietako pertsonaiek intsektuak irudikatzen dituzte. Izan ere, intsektuen izurriteak ziren, gehienetan, uztak galarazten zituztenak (gosea eta heriotza zekartenak). Iturengo eta Zubietako joaldunei erreparatzen badiegu, adibidez, garbi ikusiko dugu intsektuen kontrako errepresentazioa (ikus erretratuak). Erretratuan ikus dezakegun moduan, eskuetan daramaten eskobila antzerako horiek animalien buztana irudikatzen dute; euliak eta gainontzeko intsektuak uxatzeko animaliek daukaten buztana, hain zuzen ere. Bestalde, buruan daramatzaten ttuntturro deigarri eta koloretsu horiek ere txoriak eta intsektuak uxatzeko ziren (gaurko txorimaloen funtzio bera). Azkenik, atzean daramatzaten zintzarrien bibrazioak ere intsektuak uxatzeko ziren. Beraz, eta Urbeltzek arrazoia badauka, inauterietako pertsonai hauen funtzioa intsektuak uxatzea zen.



Mozorrotutako zomorroa

Inauteri hitzaren azalpena ere eman zigun Xamarrek. Inauteri hitza inausi berbatik datorrela esan zigun (podar, gaztelaniaz). Neguan intsektuak lotan edo negua pasatzeko poltsetan egoten ziren, eta urtaro hori aprobetxatu behar zuten adarrak inausi eta intsektuak akabatzeko. Xamarrek esan zigunez, ordaindu egiten zieten intsektu-poltsak batu eta erretzen zituztenei.

Inauterietako mozorro hitzaren jatorria ere ezagutu genuen. Silaba mugimendu txiki bat egiten badugu, zomorro berbarekin topo egingo dugu. Urbeltzen esanetan, mozorrotzea zomorrotzea da. Goizuetan, adibidez, mozorrotuta daudenei, zomorroak deitzen diete.

Azalpen ausarta da Urbeltzek ematen diguna, baina, orain arte ez da inauterien gaineko beste azalpenik eman. Eta Xamarrek erakutsi zizkigun erretratuetan ikusi genuenez, Europako hainbat herritan ere inauteriek zentzu bera daukate; Suitza, Errumania, Austria edo Alemaniako inauterietako koreografia gurearen oso antzerakoa da (zinta koloretsuak, maskarak, ...).

Hirietako inauteriak

Inauteriek inamaitzeko, hirietako inauteriei erreparatu genien. Goseak, gaixotasunak eta heriotzak dakarten kaosa errepresentatzen dute hirietako inauteriek. Kaosa da hirietako inauteriak ulertzeko hitz klabea. Eta kaos honen barruan, gizarteari buelta emateko aukera ematen zuten inauteriek: eskale zena aberatsa bihurtzen zen, gizonezkoak emakume, laikoak elizgizon, lapurrak polizia, ... Baina iraultza hau ez zen agintarien gustukoa, eta makina bat ahalegin egin dira inauteriak debekatzeko edo zigortzeko. Iruñeko abade bati, adibidez, 1601ean sekulako zigorra ezarri zioten kardinalarena egiteagatik; bi urtez erbesteratuta izan ondoren, urtebetez jardun zuen lanean txikitarik kobratu gabe, eta, gainera, isuna ordaindu behar izan zuen.

Amaitzeko, alardeak

Bost minutu ingururen faltan amaitu zituen Xamarrek inauterien gaineko azalpenak, eta jendearen eskariz, alardeak zer diren azaltzeko aprobetxatu zuen. Alardeen esanahia eta arrazoiak ez dira gertaera historikoetan topatu behar. Bere esanetan, alardeak Euskal Herri osoan egiten ziren. Urtean egun bat izaten zen herri bakoitzeko ejertzitoak desfilatzeke, baina ohitura hau bertan behera geratu zen Espainiako ejertzitorea joateko obligazioa ezarri zutenean (nahiz eta Irunen eta Hondarribian oraindik ere bizirik dagoen).




URA MAHATSAREN PARTEZ

[Euskal Herrian heriotzaren gainean zeuden errituak](#) ikusi eta gogoratzeko bideoarekin ekin genion Euskara Kultura Tradizionala ezagutzeko ikastaroaren bosgarren saioari (konturatu gabe, iritsi gara ikastaroaren erdibidera).

- **Herri mailako errituak eta jaiak**

Heriotzaren bueltako errituak atzean laga, eta herri mailakoak aztertzen hasi zen Xamar. Eta hasteko, Gabonetako errituak eta jaiak ikusten hasi ginen. Baina, errituekin hasi aurretik, garbi laga zigun Xamarrek gure herriaren historia ez dela zero urtean hasten (Jesusen jaiotzarekin batera, alegia). Aurretik bizi eta gertatutako guztiak eragin handia izan zuen gure historian eta kulturean. Eta hau aitatu ondoren, Gabonak edo Eguberriak lantzen hasi ginen.



Gure arbasoentzat eguzkia bizitzaren jainkoa zen. Izenari berari erreparatu behar diogu, ezertan hasi aurretik. Gaztelaniaz *Navidad* edo Natividad bada (Jesusen jaiotza ospatzeko jaia, hain zuzen ere), gure ospakizunak ez dauka zer ikusirik Jesusen jaiotzarekin. Eguberrietan gau luzeen amaiera eta eguna luzatzen hasten dela (solstizioa) ospatzen genuen euskaldunok. Izenak dioten moduan, egun-berria edo argi berria ospatzen genuen. Eguna, izan ere, argia dagoen denbora tartea da, eta Eguberrietan argia edo eguna luzatzen hasten dela ospatzen zen. Gure arbasoentzat eguzkia bizitzaren jainkoa zen, eta gauak beldurra eta kezka sortzen zituen. Honek, beste kasu askotan moduan, euskal kultura naturari oso lotuta dagoela erakusten digu.

Eguzkia bizitzaren jainkoa bazen, zein zen etxe barruko eguzkia? Sua. Honek Eguberrietako erriturik zaharrenetakora garamatza. Negurako egurra prestatzerakoan, etxe edo baserri bakoitzak egur edo enbor zati bat gordetzen zuen (*bazterrekoa*), Eguberri gauean erretzeko. Baina egur hau ez zen guztiz erretzen, eta egur hondarrak gorde egiten ziren. Erretako egur hauek, besteak beste, animaliak sendatzeko (egur errearen gainetik pasaraziz) edo norberaren ohe azpian gordetzeko izaten ziren. Izan ere, ordukoen ustez, egur hau magikoa zen. Egurra erretzeko ohitura hau Europa zahar osoan zabalduta egon zela esan zigun Xamarrek.

Zergatik dute erro bera aipatu berri ditugun egun (*egu*), *eguzki* eta *egur* berbek? Xamarren esanetan, argitasunaren erro zaharra -eg- delako, eta hortik dator argiarekin lotutako hiru berbon erroa. Kurioso, ezta? Beste adibide bat: Zerk ematen digu argia gizakioi eta animalioi? Begiek, ezta? *Begi* hitzak ere argitasunarekin lotutako hitzen erroa dauka (b-eg-i). Eta, zer daukagu egunaren edo argiaren beste aldean? Gaua edo iluna.

Eguzkia argia bada, ilargia iluna da (hildako argia, alegia).

Xamarren esanetan, euskarak ere balio du ideien arkeologia egiteko. Bere esanetan, hitzak ez ziren besterik gabe asmatzen (logika batekin jartzen ziren), eta, gure kasuan, euskara oso tresna egokia da gure aurrekoen gizartea ezagutzeko. *Elur* eta *lur* berbak horrenbesteko antza izatea, adibidez, ezin da kasualitatea izan. Duela 30.000 urte izan zen glaziazioan topa dezakegu bi berba hauek hain antzerakoak izatearen arrazoia.

- **Ur tragoa mahatsaren partez?**



Sargoateko iturria. Ura oso elementu estimatua eta baloratua izan zen euskal kulturari. Eguberrietako errituekin segitzeko, *urte* berba idatzi zigun Xamarrek arbelean. Zer esan nahi du urte berbak? Ur aroa edo periodoa (*lehortek* lehor garaia, edo *gosestek* gose periodoa esan nahi duten moduan).

Xamarren esanetan, euskaldunok uraren zikloaren arabera neurtzen genuen denbora. Ura oso elementu estimatua eta baloratua izan zen euskal kulturari (haizeari, ordea, beldur handia genion). Ura bitzta zen, eta, adibidez, euria ari zuenean ez zuten eguraldi txarra ziharduela esaten, gaur egun bezala. Halaber, norbait hiltzen zenean euria egitea nahi izaten zuten. Xamarrek esan zigunez, bere osaba bat arduratuta hil zen ekainean (uda izanik, euria egiteko arrisku txikiagoa zegoelako).

Eta urak Euskal Herrian izan zuen garrantziarekin amaitzeko, Nafarroako Sakana bailarako ohitura polit bat kontatu zigun Xamarrek. Gabon zahar gauean, gaueko hamabiak jotzarekin batera, Urdiaineko gazteek, pitxerrak eskuetan dituztela, ura hartzen dute herriko iturrietatik. Urte berriari ur berriarekin egiten diote harrera. Eta ur berriarekin agintariengana joan ondoren, etxez etxe banatzen dute ura, bertsoak edo koplak kantatuz. Beraz, garai batean, mahatsaren partez, ur freskoarekin egiten zitzaion ongi-etorria urte berriari (urte berria/ur berria). Xamarren esanetan, ohitura zahar hau Euskal Herri osoan egon zen zabaldua. Eta Eguberrietan egurra erretzeko ohitura Europa osoan egon bazen zabaldua, urarena Euskal Herrian bakarrik eman zen.



Segidan, erronka hau laga zigun mahai gainean Xamarrek: *“Zergatik ez duzue euskal ohitura zahar eta polit hau Elgoibarren berpizten? Ez da gauza askorik behar: dozena bat lagun, prestatutako pare bat bertso, ur-pitxarra batzuk eta iturri bat nahikoa duzue. Dirulaguntzarik ere ez daukazue eskatu beharrik!”*. Animatuko al gara?

- **Olentzero gurea!**

Kristautu gabeko azken jentila bezala ikusten du Xamarrek Olentzero.

Eta, amaitzeko, Eguberrietan hain ezaguna den Olentzerori erreparatu genion. Kristautu gabeko azken jentila bezala ikusten du Xamarrek Olentzero.

Abenduaren 24an kaleratzen den pertsonai honek izaera eta agertzeko modu diferenteak dauzka, toki batetik bestera. Izaerari dagokionez, gehienetan, tripontzia eta edari zalea da. Sarritan, gainera, Olentzero pertsonaia beldurgarri moduan ere azaltzen da, igitai eta guzti, eta ohera joan nahi ez zuten umeei lepoa moztuko ziela esaten zieten. Leku batzuetan igitaiak tximinian beheara ere botatzen zituzten, etxean zeuden umeak beldurtu eta oheratzeko.

Jende aurrera azaltzeko orduan, berriz, era edo modu asko ikusi dira han eta hemen. Leku batzuetan balkoian azaltzen da, eta umeek kaletik abesten diote; beste batzuetan, teilatuan jartzen dute, tximiniaren kontra. Hala ere, ohiturarik zabalduena Olentzero aulki batean eseri eta etxez etxe eramatea da.

Edozein modutan ere, gaur egun ezagutzen dugun Olentzero *opari-banatzailea* oso kontu berria da (1978tik honakoa, Xamarren esanetan).

SORTZEN DENAK HILTZEA ZOR

Euskal Herriko haurrak gazte izatera nola pasatzen ziren ikusi ondoren amaitu genuen aurreko asteko hitzaldia. Gogoan baldin badaukazue, herriaren aurrean dantza egiten zutenean lagatzen zioten neskek eta mutilek ume izateari. Aste honetako saioari, berriz, folkloreak komunitate bat egituratu eta trinkotzeko orduan daukan garrantzia azpimarratuz ekin zion Xamarrek. Folklorea, gaur egun desprestigiatutako termino bat izan arren, oso gauza garrantzitsua izan da Euskal Herrian.

Eta folkloreak garrantzia nabarmendu ondoren, euskal errituei heldu zien, berriz ere. Aurreko astean esan genizuen moduan, bizitzaren pasarteei erreparatuz aztertuko ditugu euskal errituak. Eta [jaiotzaren eta gaztetasunaren gaineko errituekin](#) hasi baginen, gaurkoan ezkontza, dibortzioa eta heriotza ikusi ditugu. Ikus ditzagun hirurak:

- **Ezkontza:**



Euskal ezkontza tradizional baten irudikapena Durangon.

Euskal gizartean ezkontzak garrantzia handia izan zuen. Hori bai, Xamarren esanetan, ezkontzek zerikusi gutxi zuten maitasunarekin. Jendea ez zen ezkontzen maitasunagatik. Ezkontzen helburua etxearen segida bermatzea zen, familia transmisioa ziurtatzea, eta maitasunak apenas zuen garrantzirik. Garai hartan amodiozko ezkontzek ez omen zuten emaitza onik ematen, eta, Xamarrek esan zigunez, ezkontideak ezagutu gabe ere prestatzen ziren ezkontzak. Kasuren batean, mutil bati nobia ezkontza egunean aldatu ziotela ere aitatu zigun (alaba bat aurkeztu aurretik, eta ezkontza egunean honen ahizpa azaldu omen zen ezkontzara. Baina ezkondu egin ziren, hala ere). Garai hartan “*norekin ezkontzen zara?*” galdetu beharrean, “*nora ezkontzen zara?*” galdetzen zen. Benetan garrantzitsua zein etxetara ezkontzen zinen jakitea zen; ezkontideak ez zuen aparteko inportantziarik.

- **Dibortzioa:**

Elkartzen den guztiak dauka banatzeko arriskua, eta, kasu honetan ere, ezkontzaren beste aldean dago dibortzioa. Dibortzioa XX. mendeko lorpen moduan ikusi dugu askotan, baina 1522an Euskal Herrian dibortzioa araututa zegoela ikusi eta jakin dugu. Inguruko herri eta kulturetan ez da antzerakorik ikusten, baina, esan bezala, euskal foruetan garbi idatzita zeuden dibortzio kasuetan ezkontide



bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak zein ziren. Besteak beste, etxea zeinentzat izango zen eta seme-alabak zelan gobernatuko zituzten agintzen zuten foruek. Bitxia da ikustea emakumeak zelako babesa izan zuen gure gizartean; gizonarentzat, adibidez, zailagoa zen banatzea. Hau ere ez da inguruko herri eta kulturetan ikusten. Kasu honetan ere euskal matriarkatuaren aztarnak ikus ditzakegu.

- **Heriotza:**

Eta laugarren saioarekin amaitzeko, heriotzaren gainean berba egin zigun Xamarrek. Etxekoren bat hiltzorian zegoenean auzoari deitu behar zitzaion; *“lehen auzoari”*, zehatzago esanda (sasoi hartan etxe eta baserri bakoitzak lehen auzoa zuen), eta *“lehen auzoan”* bizi zirenek laguntzen zieten hiltzorian zegoenaren etxekoei (medikuari eta abadeari abisatzeko edo etxeko lanak egiteko, adibidez). Eta etxekoren bat hiltzen zenean ere, lehen auzoak egiten zituzten hil ondorengo zeregin edo tramite guztiak (hildakoa jantzi, familiakoei abisatu, ...).



Hil ondorengo ohitura eta erritu batzuk ere kontatu zizkigun Xamarrek. Adibidez, hileta elizkizunetara animaliak eramaten zituztela esan zigun. Etxe indartsuek idiak eramaten zituzten, eta etxe txikietatik, berriz, ahuntzak edo animalia txikiagoak. Ohitura hau garai batean hildakoen omenez animaliak sakrifikatzen zituztelako dela pentsatzen da. Eta animaliekin segituz, etxeko animaliei abisatu egiten zieten etxeko norbait hiltzen zenean (animaliak ere etxekoak ziren). Eta, batez ere, erleei jakinarazten zieten, hauek argizaria egin zezaten, gero kandelak egin eta hildakoei argia emateko.

Bestalde, norbait hiltzen zenean, hildakoaren familiak jatordua prestatzen zuen. Samina arindu eta mina sozializatzeko helburuarekin, herri guztia elkartzen zen jatordu baten bueltan. Eta jatordu hauek ez ziren nolanhikoak! Askotan bizpahiru eguneko iraupena izaten zuten, eta, Xamarren esanetan, etxe bat baino gehiago arruinatu zen hil ondorengo bazkari hauengatik. Honi aurre egiteko, Gipuzkoako Foruetan, adibidez, mugatu egin zuten bazkarira joateko gonbidatuen zerrenda. Etxekoak eta senitartekoak bakarrik zuten bazkarira joateko baimena (apaizek gogor egin omen zuten agindu honen kontra).

Atal honekin amaitzeko, pertsona bat agonian zegoenean (eta heriotza luzatzen zenean), teilatutik teila bat kendu edo leihoa zabaltzeko ohitura ere bazegoela esan zigun Xamarrek. Teila kenduta edo leihoa zabalduta, arimak errazago egingo zuen zerurako bidea.



- Harrespila, mairubaratza edo 'cromlech'-a, izen ezberdinak Okabeiko (Nafarroa Beherea) historiaurreko hilobiarentzat.

Hilerriak:

Eta, amaitzeko, euskal hilerrien gainean jardun genuen. Euskal hilerriak belardiak izan direla aitatu ondoren (oraingo marmolezko hilerriekin zerikusirik ez zutenak), trikuharrien eta harrespilen

(cromlech) gainean jardun zuen Xamarrek. Berak esan zigunez, trikuharriak eta harrespilak historiaurreko hilobiak badira ere, 1.300 eta 1.500 urteen artean hildakoen errautsak lurperatzen ziren harrespiletan. Aralar mendikatean, adibidez, trikuharrien aurrean artzainak gelditu, txapela kendu eta otoitz egiteko ohitura zuten oraindik XIX. mendean.

Aralarrera joan gabe, guk ere hor dauzkagu Karakate eta Irukurutzeta arteko mendilerroan Jose Migel Barandiaranek aztertutako hemeretzi tumulu eta trikuharriak. Ez da lekurik txarrena hil ondoren atsedena hartzeko, ezta?

EUSKAL ERRITUAK

Hogeita hamalau lagun elkartu ginen Euskal Kultura tradizionala ezagutzeko ikastaroaren hirugarren saioak zer ematen zuen ikusi eta entzuteko.

Etxearen gaiarekin amaitzeko, bizpahiru ideia nabarmendu zizkigun Xamarrek. Lehen ideia euskal abizenen gainean bota zigun. Izan ere, askok pentsatu izan dugunaren kontra, Lopez edo Perez abizenak, Etxeberria edo Urrutikoetxea bezain euskaldunak dira. Bai, Lopez abizenaren atzean “*Loperen semea*” dago; Perezen atzean Pere edo Peruren semea dagoen bezala. Izan ere, X-XI. mendetik aurrera euskal abizenek bi osagai izateko joera nagusitu zen: lehena, aitaren erreferentzia zen – patronimikoa- (amarena ere bai, baina gutxiago), eta, bigarrena, etxearen edo herriaren izena. Martin Iñiguez de Karkizano (edo Martin Iñiguez Karkizanokoa) itsasgizon elgoibartarraren izen-abizenak ditugu honen adibide. Martin da bere izena; Iñigoren semea dela erakusten digu Iñiguez abizenak; eta, azkenik, zein etxetako den azaltzen du bigarren abizenak (Elgoibarko Karkizano baserrikoa). Izen-abizenen egitura hau Euskal Herri osoan egon zen zabaldua XVI. mendera arte; gerora, Araban eta Lizarra aldean mantendu bada ere, gainontzeko tokietan desagertzen joan zen.

Bigarren ideia moduan, etxe baten jabetza erabakitzerakoan, etxeok lehentasuna zutela azpimarratu zigun. Maiorazkoek familiaren etxea kanpoko bati saldu arren, hau berreskuratzeko aukera izaten zuten etxeok. Besteak beste, horregatik ikusten dugu etxe batean abizen bera 600-700 urte pasa ondoren.



Hirugarrenik, etxe-jabea izatea oso garrantzitsua zela aitatu zigun Xamarrek. Izan ere, honek, besteak beste, herriko batzarretan parte hartzeko edo botoa emateko aukera ematen zuen.

Amaitzeko, etxea ez ezik, herrietako lurrak ere (herlurrak) zentzu kolektiboa zutela ikusi genuen; propietate pribatua kontu berria dela. Kooperatibak Euskal Herrian sortzea, behar bada, ez da kasualitatea izan.

Eta euskal etxearen atek itxi ondoren, euskal errituak aztertzen hasi zen Xamar. Zoritxarrez, papera baino ez zion kendu errituen gaiari, baina hurrengo bi saioetan errituen kaxan gordeta dagoena atera eta erakutsiko digula agindu zigun. Hasteko, bizitzako pasarteak kultura guztietan ospatzen direla azpimarratu zuen. Eta gurean ere erritu batzuk aurki ditzakegu, besteak beste, jaiotzaren, heriotzaren edo ezkontzaren inguruan. Goazen batzuk ikustera:

Jaiotzaren inguruko errituak:

Garai batean, amatasuna edo emetasuna emakumeek bakarrik ospatzen zuten. Ume bat jaiotzen zenean, emakume festa izaten zen (atso-besta). Umearen ama eta bere inguruko emakumeak elkartu eta jaia antolatzen zuten. Eta ez zen nolanhiko jaia izango, gainera. Bilbo aldean, adibidez, beldurtu ere egin ziren bertako agintariak! Izan ere, Bizkaiko hiriburuko ordenantza batean azaltzen zenez, Udalak debekatu egin zuen jai hauetan 7 emakume baino gehiago elkartzea. Xamarrek zigunez, oraindik ere egiten da jai hau herri batzuetan (Ibarran, adibidez).



esan

Bestalde, erditu ondoren emakumeek debekatuta zuten etxetik irtetea. Debeku hau ama babesteko modu bat izango zela pentsatzen da. Baina, emakumeak debekatuta bazuen etxetik irtetea, zeinek egiten zituen etxaldeko lanak? Zelan moldatzen ziren orduko emakumeak, debekua hautsi gabe, etxetik kanpoko lanak egin ahal izateko? Teila bat buruan zutela irteten ziren etxetik lanak egitera. Esku batekin teilari eusten zioten bitartean, bestearekin jarduten zuten lanean. Sinistea ere kosta egiten da, ezta?

Gero, bideo bat ipini zigun Xamarrek, eta, bertan, bataiatu aurretik hiltzen ziren umeak zelan lurperatzen zituzten ikusi genuen. Umea bi teila artean hartu, eta etxeko teilapean (etxearen kanpo aldean) ematen zioten lurra. Bestalde, kanpotik ekarritako txakur bat zelan etxekotzen zuten ere ikusi genuen. Txakurra hartu eta beheko suaren gainean hiru buelta ematen zizkieten txakurra bertakotzeko. Hori eginez gero, txakur horrek ez omen zuen etxe horretatik alde egingo.

Haurra izatetik gazte izatera:

Nola laguntzen zioten haur bati gazte izateko urrats hori ematen? Noiz esaten zen mutil edo neska batek ume izateari laga ziola? Gehienok ahozabalik geratu ginen Xamarren azalpenarekin. Dantzak edo dantzari izateak marrazten zuen haurraren eta gaztearen arteko marra. Bai, gaur egun edaten, erretzen edo neskatan-mutiletan hasteak markatzen duen moduan, gure aurreko haurrek dantzari izatera pasatzen zirenean lagatzen zioten ume izateari. Neska edo mutil batek 14-15 urte betetzen zituenean, edo ume planta izateari lagatzen zionean, herriko dantza arduraduna joaten zen mutil edo neska horren etxera, dantza taldeko kide izateko gonbitearekin. Eta, gero, egun handia iristen zen:

herriko plazan dantzari bezala aurkezteko eguna, hain zuzen ere. Egun horretan, herriaren aurrean dantza egiten zutenean, lagatzen zioten neskek eta mutilek ume izateari. Ez ziren gaur egun ulertzen ditugun dantza-taldeak. Herriko dantzak baino ez zituzten ikasten, eta urtean bitan baino ez zuten dantzan egiten (herrian bakarrik, gainera), baina dantzari izatea ohore bat zen mutil edo neska horientzat. Eta, gainera, etxeko ohorea era zaindu behar zuten, dantzan ahal zuten ondoen eginez. Gazte hauek ezkondu arte jarduten zuten dantzan.

Ikusten duzuen moduan, euskal errituen kaxatik sorpresa eta bitxikeria bat baino gehiago aterako digu Xamarrek. Datorren astean kontatuko dizkizuegu gehiago.

GURE AMAREN ETXEA

Oraingoan ere, hogeita hamabi lagun elkartu ginen *Euskal Kultura Tradizionala ezagutz* ikastaroaren 2. saioan. Lehen saioan jendea gustura geratu zen seinale izan daiteke, behar bada.

Hizkuntza eta kultura guztiak, gurea barne, inguruko hizkuntzen eta kulturen eraginaren ondorio direla gogoraraziz hasi zuen Xamarrek bigarren saioa. Hala ere, garbi laga zigun badela euskal kultura tradizionala. Zoritxarrez, euskaldunok, topikoetatik aparte, ezagutzen ez dugun euskal kultura tradizionala.

Eta, hasteko, oso sinplea dirudien gai bati kendu zion hautsa Xamarrek: **ETXE**Ari.

Etxea ez da nirea, ni etxekoa naiz

Etxea gure gizartearen oinarria dela esan zigun Xamarrek. Baina, zer zen etxea euskal gizartean? Hasteko, etxea entzutean ez dugula baserria bakarrik imajinatu behar esan zigun. Izan ere, Euskal Herriko leku askotan ez da sekula baserririk izan (Nafarroako Artaxonako eta bere inguruko etxeak aitatu zizkigun, adibide moduan).



Eta zein dira, bada, etxearen funtzioak? Lau funtzio nagusi azpimarratu zituen:

1. **Bizitokia:** Ezer baino lehen, etxea bizitokia da. Familia biltzen eta bizi den espazioa.
2. **Lantokia:** Bizitokia ez ezik, familia baten biziraupena ziurtatzen zuen etxeak. Etxea eta etxaldeak (baratzeak, lurrak, ...) ematen zion familia bakoitzari bizitzeko behar zuena.
3. **Espazio sakratua:** Etxea espazio sakratua zen. Elizak edo hilerriak zuen tratamendu bera zuen etxeak ere. Ondorioz, Euskal Herriko etxea beti egon da erritoei eta sinismen munduari lotuta. Adibide moduan, esan zigun ohitura handia egon dela leihoetan kandelak pizteko. Zertarako? Etxean hildakoei argia emateko. Normalean, etxeko andrea zen kontu hauetaz arduratzen zena.

4. **Hilerria:** Hildakoak etxean lurperatzen zituzten Euskal Herrian. Non egongo ziren hobeto, gure hildakoak, etxean baiño? Heriotzaren gaineko ikuspegia asko aldatu da orduetik hona, ezta? Ohitura honek ez zuen zer ikusirik inguruko herrien ohiturekin. Gerora, eliza barruan hasi ziren hildakoei lurra ematen, baina ez zen eten etxearen eta hildakoaren arteko zilborrestea. Etxetatik elizara arteko bideak egin zituzten (hilbidea, elizbidea, ...) eta bide hauek sakratuak ziren; ezin ziren ukitu. Adibide moduan, kontu xelebrea kontatu zigun Xamarrek. Lekuren batean, itxura denez, etxe bat egin zuten hilbidearen gainean. Baina bide hau sakratua zenez, hildakoa eta honen senitartekoak etxearen barrutik pasatzen ziren (ataritik sartu eta ukuilutik irten) etxetik elizarako bidean. Gerora, berriz, herriak handitzen hasi zirenean, eliza barruan lurperatzeari laga eta hildakoei elizaren kanpo aldean lurra ematen hasi ziren (baina haserre handiak piztu ziren aldaketa honekin).

Etxearen funtzioen gainean jardun ondoren, **etxearen izaera** landu genuen. Xamarren esanetan, Euskal Herrian etxeak beti izan du izaera kolektiboa. Etxea ez da inorena; mendez mende transmititzen den onura kolektiboa da. Etxea ez da nirea, ni naiz etxekoa. Euskal Herriko etxeek, gainera, izena zuten, eta etxe horretan bizi zirenek etxearen izena hartzen zuten. Hain zegoen errotuta jendearen artean etxearen izena, gazte batzuek ez zutela haien abizenaren berri izaten soldaduskara joan arte.



Etxea hain garrantzitsua izanik, nola transmititzen zen etxea belaunaldi batetik bestera? Zein geratzen zen etxearekin gurasoak hiltzen zirenean? Honetan ere gure ohitura propioak izan ditugu. Izan ere, Euskal Herrian seme edo alaba nagusiarentzat izaten zen etxea (inguruko kulturetan semeek bakarrik jasotzen zuten etxearen jabetza). Eta, gainera, kasu askotan, alabari ematen zioten etxea gurasoek, alabak etxea hobeto zainduko zuelakoan. Beraz, maiorazkoa gizona izatearen kontua azken urteotakoa da.

Ondoren, etxeak euskaldunon hitz egiteko modua ere markatu duela aitatu zigun. Izan ere, orduko euskaldun batek sekula ez luke *"nire etxea"* esango, *"gure etxea"* baizik. Edo, ezkonduko gizon edo emazte batek ez luke sekula esango, *"nire gizona"* edo *"nire emaztea"*, *"gure gizona"* edo *"gure andrea"* baizik. Izan ere, ezkutuan dagoena *"gure (etxeko) gizona"* edo *"gure (etxeko) andrea"* da. Erabilera zuzenaren eta okerraren adibide moduan, bi poeten poemak erakutsi zizkigun Xamarrek. Gabriel Arestik, adibidez, *Harri eta Herri* poema ezagunean, honela dio: *"Nire aitaren etxea defendituko dut"*. Euskal kulturari kasu eginez gero, *"Gure amaren etxea defendituko dut"* idatzi beharko luke Arestik. Xalbadorrek,



berri, *Sortetxeari* bertsoetan, etxeak berarentzat duen pisua eta esanahia erakusten digu:

*Dudalarik zerbait pena
zu zaitut lagun lehena,
ihes leku hoberena.
Zure alderat inguratzen naiz
ahalik eta maizena.
Munduko leku maitena,
zuri zor dautzut naizena:
izana eta izena.*

Amaitzeko, Euskal Herriko etxearen bi sinboloak sua eta teila direla aitatu zigun Xamarrek. Sua bizitzaren sinboloa da (etxe bat hutsik zegoenean, etxe suhila zela esaten zen); teila, berri, propietatearena.

[Gotzon Garatek betirako agur](#) esan zigun egunean jardun genuen euskal etxearen gainean. Zenbat ordu eman ote ditu Gotzonek etxe hauetako sukaldeetan sartuta! Izugarri gustatzen zitzaion Euskal Herriko zazpi probintzietan bisitatzen zituen etxeetan ikusi eta, batez ere, entzuten zuena. Horrelako eskolarik ez zegoela esaten zuen.

Bera bizi zen artean euskara ez zela desagertuko esaten zuen Gotzonek. Eta asmatu du. Gure amaren etxean oraindik ere euskaraz hitz egiten da, Gotzon, eta, zuk egin zenuen moduan, daukagun onena ematen segituko dugu etxea hutsik eta isilik gera ez dadin.

EUSKAL KUTURA TRADIZIONALA

Xamar: *“Beti izan dugu garbi zer izan garen, eta horregatik irauin dugu herri moduan”.*

Atzo (urriak 1) izan zen Xamarrek Elgoibarren emango duen Euskal kultura tradizionala ezagutzeko ikastaroaren lehen saioa. 20 orduko iraupena izango duen ikastaro honetarako, 33 lagunek eman dute izena, eta 32 azaldu ziren atzo Kultur Etxeko hitzaldi-gelara; denak ere gure kultura hobeto ezagutzeko gogoarekin. Ezagutzen ez dena ezin dela maitatu dio aipu batek, eta horixe da, hain zuzen ere, ikastaro honen helburua: gure herria hobeto ezagutzea eta maitatzea.



Atzera begira, aurrean daukaguna ulertzeko

Gaur egun euskaldunaren irudirik edo prototiporik ez dagoela esanez hasi zen Xamar. Estereotipoak hor daude oraindik ere (txapelarena, adibidez), baina euskaldun bat ezagutzeko ez da nahikoa ikustearekin; euskalduna zein den jakiteko entzun egin behar da. Eta, horretarako, ariketa txikitxo bat egin genuen. Orri batean zazpi lagunen marrazkiak jarri zizkigun, eta, guk, bakoitza zer herritakoa zen asmatu behar genuen. Jantzkerari

erreparatuta asmatu behar genuen bakoitza nongoa zen. Besteak beste, indiar bat, ingeles bat, frantziar bat, argentinar bat edo euskaldun bat ikusi genituen, baina, gure harridurarako, zazpi irudietatik sei euskaldunak ziren. Guk ezagutu ez genituen euskaldunak. Garai hartan bai, arropen erreparatuta bazegoen euskalduna zein zen jakiterik, baina, gaur egun, hau ezinezkoa da. Gaur egun, pertsona bat euskalduna den ala ez jakiteko entzun egin behar da.

Gero, gure buruari askotan egin diogun galdera bat luzatu zigun Xamarrek. *“Zergatik iraun dute euskarak eta Euskal Herriak hainbeste mendetan, inguruko herri asko eta asko desagertu badira? Zergatik ez dira euskara eta Euskal Herria desagertu?”*



Honen gainean badaude Xamarri gustatzen ez zaizkion teoriak. Batzuen esanetan, erromatarrak Euskal Herriatik pasa ez zirelako iraun dugu; beste batzuek, berriz, herri menditsua, basatia eta isolatua izan garelako iraun dugula diote. Bada gure herria inork ere konkistatu ez duelako iraun dugula esaten duenik ere. Bi orduko hitzaldian teoria hauek bertan behera bota zituen Xamarrek. Bere esanetan, Europan atzera eta aurrera ibili ziren herri guztiak pasa dira Euskal Herriatik: erromatarrak, bisigodoak, zeltak, arabiarrek, ... Eta, batez ere, erromatarrek gurean izan zuten eragina azpimarratu zigun. Erromatarrak bost edo sei mendez egon ziren gurean, eta honen gaineko hamaika adibide eta ondorio kontatu zizkigun. Berak esan zigun moduan, herri bat ezin da bost mendez mendira igo eta “ya parasan!” pentsatzen egon. Bitxikeria moduan, esan zigun euskaldunok erromatar armadetan ere parte hartu genuela; Gipuzkoako 1.000 gizon (barduloak) Eskozia konkistatzera joan omen ziren erromatarrekin batera.

Xamarrek esan zigun moduan, Euskal Herria erromanizatu egin zen, baina ez zen latinizatu. Hala ere, oso argi laga zigun latinaren eragina oso handia izan dela, eta gure hiztegiaren % 60 inguru latinetik hartutako hitzetatik omen dator. Agur hitza ere, latineko augurium berbatik dator.

Europako historia Erromak aldatu zuela aitatu zigun, baina, euskara eta Euskal Herria ez ziren galdu. Eta, orduan, Euskal Herriak ere erromatarren aurreko herriek bizi izan zuten egoera beretsua ezagutu bazuen, zergatik ez zen haiek bezala desagertu? Zergatik iraun dugu? Beti izan dugulako oso argi zer izan garen; beti izan dugulako oso argi nondik gatozen. Gure kulturaren eta izaeraren zati handi bat kanpoko herriein izan ditugun harremanen eta eraginaren gainean jasota dago, baina beti izan dugu argi euskara dela herri honen izaera markatzen duena (gaur arte bai, behintzat). Xamarrek esan zigun moduan, hemendik pasa eta inguruan dauden herriengandik asko jaso eta ikasi dugu, baina ez diogu sekula uko egin gure euskaldun izaerari. Horregatik iraun dugu gaur arte. Gure



bizitza euskarari lotuta ikusi izan dugulako.

Esan bezala, eta amaitzeko, euskal kulturaren erdia beste herriengandik jasotakoan oinarritzen da, baina badira gureak diren ezaugarriak; badauzkagu aspaldikoak eta gureak diren kultur aztarnak. Hain zuzen ere, horixe da ezagutu nahi duguna. Euskal kultura tradizionala ezagutzen emango ditugu hurrengo bederatzi asteazkenak. Xamar bidelagun dugula, 18 ordu hartuko ditugu atzera begiratzeko. Izan ere, kasu honetan ere, atzera begiratu behar dugu aurrean daukaguna hobeto ulertzeko.

XAMARRI ELKARRIZKETA

Xamar: *“Herri moduan iraun dugulako zabal dezakegu gaur ardo botila on bat”*

Abenduak **3** egun ditu gaur. Asteazkena da eta *Euskal Kultura Tradizioanala ezagutuz* ikastaroaren azken saioa tokatzen da. Baina Xamar gaur ez da gurean izango; Nafarroako Eguna da eta jai hartu du. Baina Euskararen Nazioarteko Eguna ere badela aprobetxatuz, berarekin egon gara luze eta zabal jarduteko. Egun hau ospatzeko motiborik badagoen galdetuz hasi gara, eta, poliki-poliki, ur sakonagoetan sartu gara. Ez digu bustitzeko batere erreparorik ipini, eta zorrotz jardun digu, zintzo, gaixoa engainatu nahi ez duen sendagilearen antzera.

Euskararen Nazioarteko Eguna da gaur, Xamar; ospatuko al dugu?

Nik ez ditut maite egun hauek. Egun berezi hauek justu kontrakoa egiten dugulako antolatzen dira. Urtean zehar autoa behar baino gehiago erabiltzen dugunez, Autoaren Kontrako Nazioarteko eguna antolatzen dute. Beldur naiz euskararekin ere ez ote den antzerako zerbait pasatzen. Euskararen kasuan egoeraren seinale beldurgarria iruditzen zait. Egun berezi hauek kontzientzia zuritzeko baino ez dira, nire ustez. Gauza bat da Baldorban edo Erronkarin euskararen eguna antolatzea; leku hauetan aspaldi galdu zuten hizkuntza, eta badu justifikaziorik bertako jendeari sustraiak non dauden gogorarazteak. Baina euskararen eguna, adibidez, Orion antolatzen bada, kezkatzeko modukoa da. Orion euskara ez al da eguneroko kontua? Horrek kezkatzen nau. Madrilen, nik dakidala, ez da espainolaren egunik antolatzen. Euskara sinbolo ia huts bat gehiago bezala ikusten badugu, egun batekin ospatzeko modukoa, gaizki gabilta.



Hala ere, emango didazu arrazoi txiki bat gaur ardo botila bat zabaltzeko, ezta?

Bai, badaukagu motiborik ardo botila zabaltzeko eta husteko. Desagertzen ari diren herri guztiak daude edanari emanda, eta guk ere edan dezakegu gertatzen ari den guztia

ahazteko (kar-kar). Serio erantzunez, bada motibo positiborik ere gaur ardo botila on bat zabaltzeko: kultura bezala irauin dugulako, gutxitua, makal eta eri, baina iritsi gara XXI. Mendera; beraz, zabal dezakegu ardo botila on bat. Gure herriko historia ezagututa, ikusirik zernolako indarrak metatu eta erabili diren mendez mende gure kontra, historiaurretik orain artean, zinez harrigarria da.

Eta zergatik irauin dugu, bada, Xamar?

Orain arte herri honek oso argi izan du Euskararen Herria dela, eta euskaldunok Euskararen Jendea, halaxe definitzen da gure kulturen gure identitatea. Hau horrela izanda, hemendik edozein herri pasa arren (zeltak, erromatarrak, barbaroak, ...), edozein arotan, zernahi egoeretan historian barna, gehiengoak beti eutsi dio bere hizkuntzari, bere identitateari.



Eta desagertu ziren herriek ez al zuten hizkuntza eta herri izaera elkarri lotuta ikusi?

Europa mendebaldean behintzat bistan da ezetz. Hori da, ba, harrigarria dena. Humboldt (1767-1835) politikoa eta filologo alemaniarra, adibidez, Euskal Herria ezagutu eta maitatu egin zuen, baina XIX. mendearen hasieran 100 urteko bizi iraupena eman zion gure herriari. Ikusten zuten diglosia egoeran bizi ginela: herri xehea euskaraz mintzatzen zen, baina ofiziala zen gutxia erdaraz egiten zen. Egoera horretan Euskal Herriak gutxi irauingo zuela esaten zuten. Egia da azken bi mendeetan asko galdu dugula (Nafarroako eskualde handia galdu dugu eta Iparralde dramatikoki hondoratu zaigu azken hogeitun urteotan), baina, hala ere, irauin dugu. Herri honetan beti egon da euskararen aldeko kontzientzia, baina, orain, kontzientziaren eta koherentziaren arteko zubia ondo eraikitzea falta zaigu, oztopoak oztopo.

Abenduarearen 3an Euskararen eguna ez ezik, Nafarroako Eguna ere bada. “Nafarroa Euskadi da”, Xamar?

Hemen betiko topikoan erortzen gara. Zatiketa munduan euskaldunak txapeldunak gara; ez gara gai futbol talde bat ere antolatzeko. Nik, dagoeneko, ez ditut nafarrak, gipuzkoarrak edo bizkaitarrak bereizten; nik euskaldunen eta erdaldunen arteko bereizketa egiten dut. Izan ere, nafar euskal kontzientziadunak Gipuzkoako edo Lapurdiko euskal kontzientziadunengandik hurbilago gaude, inguruko erdaldunengandik baino. Beraz, ez da probintzia arteko kontu bat, euskaldunen eta erdaldunen arteko kontu bat baizik.



Xamar, kontatuko al diguzu, mesedez, Nafarroako Itzoiz inguruan bertako edadetu erdaldun batzuekin gertatu zitzaizuna?


Bai, lehen euskaldun eta vasco sinonimoak ziren; vascoa euskalduna zena zen. Hau tradizioan oso argi izan da beti. Baina, noski, menperatuta eta zapalduta dagoen herri batean, identitatea hizkuntzak ez duela definitzen esaten hasten dira batzuk. Euskarak funtzio guztiak galtzen ditu, eta, azkenean, hizkuntzari gelditzen zaion lehen funtzioa ere (identitate funtzioa) kolokan jartzen da. Hori da guri gertatu zaiguna. Hau ez zaie herri espainiarrari edo frantsesari gertatzen; hauek oso argi dute identitatea hizkuntzak markatzen duela. Bada, Itoiz inguruko adinekoek ere oso argi dute hau dena. Horregatik beraiekin egon nintzenean, horrela esaten zidaten: “nuestros aitas sí eran vascos (euskaraz zekitelako), pero nosotros ya no somos vascos (ez dakitelakoz euskaraz)”. Politizatu gabeko adinekoek argi dute hizkuntza dela pertsona eta herri baten identitatea markatzen duena.

Lehen esan didazu Iparraldea dramatikoki galtzen ari garela.

Franco hil ondoren egin zen lehen ikerketetan, nire harridurarako, Baxe Nafarroa zen eskualderik euskaldunena; ez zen Gipuzkoa. Euskararen ezagutza maila % 90 ingurukoa zen. Orduan hasi nintzen Iparraldea ezagutzen, eta nornahiri nonahi egin zeniezaiokeen euskaraz. 30 urte pasa dira eta hondoratu egin da euskara Iparraldean. Frantsesei berrehun urte kosta zaie egoera honetara iristea; Frantses iraultzarekin batera hasitako galera prozesuaren azken fasean gaude. Izan ere, baldintzak emanez gero, belaunaldi batean gal daiteke euskara. Hori da, hain zuzen ere, Txepetxek gure egoerari buelta emateko erakutsi ziguna: baldintza egokietan belaunaldi batean euskara errekuperatu daitekeela. Eta hau Iparraldean ikusi dugu oso argi: belaunaldi batean frantses hizkuntzak berea ez duen lurraldea irabazi du; euskarak galdu duen bera, hain zuzen ere.

Ba al daukagu galtzen ari garenaren kontzientziarik?

Ez, Hegoaldetik ez da Iparraldea ezagutzen, oso azaletik ez bada. Iparraldea kulturalki gure altxorra izan da eta dramatikoa da gertatzen ari dena. Izugarri galtzen ari gara. 80eko hamarkadara arte trinko mantendu den gizartea izan da, eta sinismenak, ohiturak eta kontu zaharrak bizi-bizirik zeuden. Gure kulturaren erreferentzia izan da, dudarik gabe, eta ez da kasualitatea gure klasikoak bertan sortu izana. Iparraldean oso baldintza soziologiko eta soziolinguistiko onak egon dira beti. Gaur, berriz, hondoa jota dago.



“Euskara salbatuta dago, arazoa gu gara” irakurri nizun behin; zer esan nahi zenuen horrekin, Xamar?

Bai, pixka bat aspertuta nago euskara sinbolo mailara eramateaz. Amazona, Palestina edo

bale baten parean jartzen dugu euskara; "Salba ditzagun Amazona, Palestina eta euskara!" Badirudi gugandik aparte dagoen zerbait dela euskara, eta gauza exotiko bat salbatu behar dugula. Urtean behin manifa batera joaten gara, Euskararen Nazioarteko Eguna antolatzen dugu, eta programan harrijasotzaileak, dantzak eta poteo euskalduna antolatzen ditugu. Eta ez gara ohartzen euskara ez dela gugandik aparte dagoen zerbait. Euskara salbatuta dago; gramatika eta hizkuntzari lotutako bestelako sistemak liburuetan jasota daude. Hemendik 1.000 urtera inor bizi bada planeta honetan (duda handiak ditut), euskara aztertu ahalko du. Beraz, euskaldunok gara gure eskubideak galdu ditugunak; hizkuntzaren bizia hitzunak dira. Horretan bat nator Migel Sanzekin: euskarak ez du eskubiderik, ados, baina gaineratu behar dugu ozenki hitzunok garela eskubideak ditugunok.

Zein dira, orduan, euskaldunok gure biziraupena ziurtatzeko klabeak?

Lehen baldintza kontzientzia eta koherentzia uztartzea da. Hemen huts egiten hasi garela uste dut. Kontzientzia badago, baina ez dakit zenbateraino dagoen hizkuntzarekin lotuta. Behar bada, badaukagu egoera larriei aurre egiteko kontzientzia, baina egunerokotasunean galdu egiten da. Adibidez, Egunkaria itxi zigutenean herria asaldatu egin zen, baina itxi aurretik 15.000 ale bakarrik saltzen ziren; oro har, erdal egunkariak erosten ditugu. Manifa batera joatea, manifestu bat sinatzea edo erretratu batean azaltzea ongi da, baina merkea eta erraza da.

Luzatu didazun hariari helduz, posible al da herri bat elebiduna izatea?

Ez da posible, eta zuen erkidea zen Gotzon Garatek hori garbi esaten zuen. Baina Gotzonen aurretik Unamunok ere gauza bera esan zuen Bilbon duela 100 urte. Hori bai, Gotzonen euskararen aldeko hautua egin zuen eta Unamunok espainolaren aldekoa. Pertsonak bai izan gaitzeko elebidunak, baina herri elebidunik ez dago. Itxura hori izan dezake momentu batean, baina argi izan behar dugu bietako hizkuntza bat galtzen ari dela. Eta, kontuz, dagoeneko ingeles batzuk ere hasi dira kezkutzen ingelesaren etorkizunarekin. Horrela esanda arraroa dirudi, baina gehiegi zabaldu diren hizkuntzak desagertu egin dira historian zehar. Hor dauzkagu, adibidez, sanskrito eta latina. Latina bere garaian gehiegi zabaldu zen eta bertako hizkuntzekin nahasterakoan, hirugarren barianteak sortu ziren: portugesa, katalana eta italiarra, adibidez. Hizkuntza hauek latinetik datoz, baina ezin dute elkar ulertu, eta latina desagertu egin zen. Hego Afrikan egiten den ingelesak, edo Txinoek egiten duten ingelesak ez dauka zer ikusirik, eta gerta daiteke elkar ez ulertzea denborarekin.

Txepetxek esan zuen euskara berreskuratzeko lehen baldintza "euskaldun izateko borondatea dela"; euskaldunok ba al daukagu euskaldun izateko borondaterik?

Galdera honekin kontzientzia eta koherentziaren gaira bueltatzen gara, berriz ere. Txepetxek zioen moduan, zenbat gara izateko borondatea daukagunok herri honetan? Hau da, zenbat jendeke uztartzen ditu euskararen aldeko kontzientzia eta koherentzia? Kopuru honen arabera dago gure etorkizuna. Gutxiengo baldin bagara, gureak egin du.



Eta kantik dioen moduan, zenbat gara? Ba al gara gure etorkizuna ziurtatzeko beste?

Baneki! Ez dakit zenbat garen, baina oso sintoma kezkarriak daude. Negatiboa naizela esaten dit jendeak, baina hitza errealista da. Uste dut mediko batek, gaixoa aurrean daukanean, diagnostiko egokia egitea dela duen lehen lana. Zer dauka, katarroa ala minbizia? Diagnostika ondo egin gabe ez dugu gaixoa sendatuko. Eta gurea, argi eta garbi, minbizia da. Honek ez du esan nahi hala delako etsi egin behar dugunik. Ez, segitu egin behar dugu eritasunari aurre egiten, sendagai egokien bila. Beste aukera gure burua engainatzea da, inozoki, baina hala ez dago aterabiderik.

Baina minbizia daukan gaixo batek iraun dezake hainbeste?

Bai, uneoro tratamenduan gaudelako eusten diogu. Baina konturatu zaitez gero eta ahulago gaudela. Iparraldean 30 urtean euskarak hondoa jo du; dramatikoa. Eta hemen, berriz, gero eta elebidunagoak gara. Ikusi baino ez dago ereduaren eredu den D eredutik nola ateratzen diren ikasleak leku batzuetan. Herri honetan ez dago hizkuntza politikarik, eta hau oso larria da.

Politikoak ez dituzu oso gustukoak, ezta?

Politikoen kasuan ere, berriz ere, koherentziaren kontuarekin topo egiten dugu: denak daude euskararen alde, baina euskara ez da lehentasuna. Bilboko udalean, adibidez, atezainak ez dakit zer hizkuntza perfil bete behar duen lanpostua lortzeko, baina ez da ezer ere pasatzen alkateak euskaraz ez dakielako. Eskizofrenia baizik ez da transmititzen gizartera.

Euskalgintzaren arduran geratzen da, orduan, gure etorkizuna?

Euskalgintzaren arduran?! Jose Manuel Odriozolak bere bi azken liburuetan ondo azaltzen duen moduan, euskalgintzaren barruan ere ez gatoz bat euskalduna zer den edo Euskal Herria zer den definitzerakoan. Beraz, panorama latza daukagu.

Ez dakit kirola gustatzen zaizun, baina Euskal Herria ala Euskadi da gure herriaren izena?

Behar ez den gisaz eztabaidatzea da gure kirol nagusia. Gurea gogorra da; edozein aitzaki nahikoa



da daukagun apurra desegiteko. Izena dela eta ez dela, partida bera ere airean dago. Horrelakoak gara. Ni beti izan naiz tradizioaren aldekoa, baina Sabino Aranak asmatutako Euskadi hitzak, dagoeneko, badu bere tradizioa. Nire ustez iparra da galdu behar ez duguna, eta kasu honetan, helburua partida jokatzea dela uste dut. Kontu hauek denek erakusten dute zer-nolako frustrazioa dagoen herri honetan; edozer txikikeriaren aurrean galtzen dugu iparra. Izena dela eta, seguruenez, ez da partidarik izango, eta ulertuko duzun bezala, batzuk irriz lehertzen ari dira. Erromatarrek ongi egiten zuten galdera: *Cui prodest?* Alegia, honek guztiak nori on egiten dio?

Zaharra da gure herria, ezta? Noiztik gaude mundu honetan pelmada ematen?

Zaharra bezain modernoa da Euskal Herria. Zahar hitzak konnotazio negatiboak dauzka: ez-modernoa, gainditua, zaharkitua, modatik kanpo dagoena eta balio ez duena. Ez da gure kasua; gu zaharrak bezain modernoak gara. Edo modernoak bezain zaharrak, nahi duzun modura. Behar bada, zaharrak baino aspaldikoak garela esan beharko genuke.

Indoeuoparren aurretik zegoen Europaren lekuko bakarrak gara; eta egunen batean Euskal Herriko historiaurrea argituko balitz, Europaren historia ezagutzeko pauso handia emango da. Horretan dihardute amerikarrek.

***“Euskara ala ezkara”* esaten zuen Gotzon Garate hilberriak.**

Bat nator Gotzonekin; euskararik gabe ez gara izanen gaur egun garena. Beste zerbait izango gara, baina ez euskaldunak. Entziklopedietan hizkuntzak komunikatzeko tresnak direla jartzen du, baina hori baino lehen bada beste zerbait. Izan ere, isilik gaudenean ere hizkuntza erabiltzen dugu; entziklopedietako definizioak ez du balio uharte batean bakarrik zaudenerako. Uharte horretan ez daukazu norekin komunikaturik, baina bakarrik zaudenean ere hizkuntza erabiltzen duzu, pentsamenduaren euskarria delako. Beraz, hizkuntza bada komunikatzeko tresna bat, baina, horren aurretik, hizkuntza zure identitatea da.

Amaitzeko, gure herria hitz bakarrarekin definitzeko eskatuko dizut, Xamar.

Bi hitz behar ditut eskatu didazuna egiteko: iraupen harrigarria.